

60 urte apeztu nizala.

Diamantezko ezteiak. Bainan dirurik ez dut aski diamantea erosteko eta aitortuko dautzuet batere ez dutala beharrik. Diamante faltsu bat eroste banu Baionanan kukusoen merkatua, ez zintezkete ohart ere faltsua dela. Beraz ez has eske bat egiten dela diamantea erosteko

Aldiz 60 urteak ez dira faltsuak. 60 urte pasatuak ditut ala Afrikan ala hemen apez lanetan. Berriki emazte batek erran daut badutala mereximendu, 86 urtetan oriano lanean artzeko. Egia da 'l'âge pivot' pasatua dutala

Eta bigarren aitormen bat egin behar dut. Batere ez dut mereximendurik, nehork ez bainau hortarat bortxatez, ez eta nihaurk neure burua. Ene plazerrarentzat ari naiz, zeren eta, zenbaitek hala uste ez badute ere, apez bat uros da bere apez bizian. Ez naiz itei xahutzerat ari den mutila iduria, finitzean hatsa hartzen baitu. Izaitekotz mahas biltzea iduriko zerbait liteke, egun guzia, nahi bezainbat mahas pikor jaten baita.

Beste norbaitek erran izan daut ez lukeela bere semea apezten ikusi nahi. Uste zuen apezak ez girela urosak. Urte parrasta bat baitu zuen artean naizela, malerusa naizela iduritzen zaizue? Lagunt lasai zure semea apez egin nahi badu. Beste nornahi bezainbat uros izanen da. Ez bada gehiago.

Noizbait gelditu beharko baitut, barnea ments sendituko naiz. Zerbait falta. Non ez naizen delako erresuma hartarat joana. Egun hootan gogoeta ari dira, Mars-erat igorri behar duten fuseo hartaz. Ni batere fuseorik gabe joanen naiz eta zuek baino lehenago heltzen banaiz, ttottoño bat beiratuko dautzuet ene ondoan.

Xipri Arbelbide apeza.